



TREBAKUNTZA 2011-02: ORTOGRAFIA (H HIZKIA)

Hitz batean H jartzeak edo ez jartzeak nahi baino zalantza gehiago eragiten digu oraindik.

OHARRA: asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. * Gurutzetako Udaleko hirigintza teknikariak **iharduera** arriskutsuei buruzko txostena egin du.
2. * Azken Jai batzordean **amalau** lagun elkartu ziren.
3. * Salaketa egiteko, inprimakiak bete eta helbide **onetara** joan behar duzu: San Juan kalea 34.
4. * Zuzenduko **ahal** didazu boletinera bidali behar dudan testua?
5. * Bertso saioa **dohan** izango da, baina saioaren ondorengo afaria ez da **doainik** izango. Afariaren salneurria 20 eurokoa izango da.
6. * Krisiak eragindako murrizketengatik, Altzoroteko Udalak erabaki du ez duela langilerik kontratatuko. **Hare** gehiago, egoera ekonomikoak hobera egiten ez badu, langileei soldata murriztea aurreikusi dute aurrekontuetan.

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

Hatxearen gainean arau zehatzik ez badago ere, zuzenketan irizpide batzuk emango ditugu, kasu jakin batzuetan oinarrituta.

1. Gurutzetako Udaleko hirigintza teknikariak **jarduera** arriskutsuei buruzko txostena egin du.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95
bizkaia1@uema.org

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72
gipuzkoa2@uema.org



Forma zuzenak hauek dira: jarduera, jardun... Beraz, **iharduera*, **ihardun* eta gainerakoak baztertzekoak dira.

2. Azken Jai batzordean **hamalau** lagun elkartu ziren.

Zenbaki gehienek H hizkia hartzen dute: hamar, hamaika, hamabi, hogeit, hogeita bat, hogeita bi, hirurogei...

3. Salaketa egiteko, inprimakiak bete eta helbide **honetara** joan behar duzu: San Juan kalea 34.

Erakusleak ere H hizkiarekin idatzi behar dira: hau, hori, hura, hauek, horiek, haiek, honek, horrek, hark...

KONTUZ! Bi kasu hauek bereizi behar dira: **Herri honetara** etorri behar duzu (=hemen dagoen herrira) eta **Herri onetara** etorri behar duzu (=onak diren herrietara).

4. * Zuzenduko **al** didazu boletinera bidali behar dudan testua?

Azken boladan, askotan ikusten dira nahastuta **al** eta **ahal**. Lehenengoa galdera batzuetan erabil daiteke (baiezkoa edo ezezkoa eskatzen dutenetan): “Etorriko **al** zara bihar?”. Bigarrena, aldiz, ahalera adierazteko: “Ez dakit joan **ahal** izango dudan”.

5. * *Bertso saioa **doan** izango da, baina saioaren ondorengo afaria ez da **dohainik** izango. Afariaren salneurria 20 eurokoa izango da.*

6. * *Krisiak eragindako murrizketengatik, Altzoroteko Udalak erabaki du ez duela langilerik kontratatuko. **Are** gehiago, egoera ekonomikoak hobera egiten ez badu, langileei soldata murriztea aurreikusi dute aurrekontuetan.*

KONTUZ! Ez dira nahastu behar **harea** (=hondarra) eta **are gehiago** espresioa.

Lagungarri izango zaizulakoan, hona hemen zalantzak eragiten duten hitz batzuk:

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95
bizkaia1@uema.org

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72
gipuzkoa2@uema.org



Hatxearekin idaztekoak: aholkua, aholkularia, ahoa, behintzat, dohainik, hila(betea), hilerria, hotsa, hurbil(du), hutsa, hustu, ihes(i), mehea, oihana, oihu, uholdea, zehar.

Hatxerik gabekoak: altzaria, amaiera, antza, arma, arra, auzia, auzoa, doan, ibaia, ilargia, inauteriak (eta ez **ihauteriak*), ilea, leuna, saguzarra, urrun(du), ziur.

KONTUZ! Gaztelaniatik hartutako hitz batzuek H hizkia galtzen dute euskaraz: umorea, umila, abila, omenaldia...

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAKo teknikariek:

- Telefonoz: **943260372 (Imanol)** eta **946279195 (Iratxe)**
- Posta elektronikoz: gipuzkoa2@uema.org (Imanol) eta bizkaia1@uema.org (Iratxe)

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.org

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95
bizkaia1@uema.org

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72
gipuzkoa2@uema.org